

euskararen
donostia
patronatua**EUSKAL JAIK**

Irailaren 1etik 9ra

Donostia Bertsotan

Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Saroi Jauregi. Irailaren 1ean, 22.30etan Trinitate Plazan

Uga taldearen kontzertua

Irailaren 1ean, 22.30etan Konstituzio plazan

UDA URGULL MENDIAN

Uztailaren 1etik irailaren 16ra

Udako liburutegia

Ipuinaren ordua
Astelehenetan 18.00etan
Damen baterian

Ordu girotua
(jolasak, esku-lanak, marrazkiak...)
Ostegunetan 18.00etan
Damen baterian

Natur Txokoa

Tailerrak, esperimentuak, natur ibilbideak
Astearte eta asteazkenetan,
17.00etatik 20.00etara
Gobernadorearen baterian

Erakusketak

"Utzidazu kontatzen"
Mendiak Donostiaren historia
kontatzen digu

2001 Urgull

Urgull mendiko gazteluaren kultur
eta historia ondarea
berreskuratze proiektua
Motako gazteluan

**ARTEA.** Ikastaroaren balorazio ona egin eta ekimen berriak iragarri dituzte antolatzaileek

Xabier Saenz de Gorbea: «Mendiburu asko daude Mendibururengan»

Ainhoa Oiarzabal | **DONOSTIA**

Atzo Remigio Mendiburu berpiztu zen. Hondarribiko eskultorea 1982. urtean grabaturiko *Dunbots* filmari esker etorri zen berriro ere bizidunen mundura, *Remigio Mendiburu: Devenir y origen. Naturaleza, etnografía y renovación formal en la escultura contemporánea* EHUko Udako Ikastaroan parte hartzera. Bere artelanei buruzko azalpenak ematen aritu zen ordu laurden batez Donostiako Miramar Jaurerrian, eta bere lantegia eta inspirazio iturria ere —izadia— erakutsi zizkigun Mendiburuk, ikastaroaren antolatzaileen arabera, «arau zinematografiko guztiak hausten dituen» film honetan.

Artistak berak hitza hartu aurretik, hiru egunetan aditu eta lagun askok hitz egin dute Remigio Mendibururi buruz. Haren obratik abiatutik, eskultorearen ezpal guztiak jaso dituzte artistaren osotasuna azaltzeko. Jardun horretan aritu zen atzo goizean Xabier Saenz de Gorbea EHUko Arte Ederretako irakaslea. Egurrekin, harriarekin eta burdinarekin eginiko artelanean ondoan, Mendiburuk Saenz de Gorbeari marrazturiko bozetoak erakutsi zituen azken honek. Marrazki horien bitartez azaldu zizkion eskultoreak irakasleari bere artelanean nondik norakoak.

Eskultorea bizi izan zen garaian kokatu zuen haren lana Saenz de Gorbeak. Bizi izan ziotuen azken urteetan, adibidez —80ko hamarkada—, aldaketa sozial eta politiko garrantzitsuak gertatu zirela azaldu zuen: «Sortu ziren instituzio berrien eta artisten artean ez zegoen harremanik. Horrek oso obra aldakorra egitera bultzatu zuen Mendiburu». *Hostoa* edo *Iturria* obren irudiak erakutsi ostean, Mendiburu asko daudela arrazoitu zuen Arte Ederretako irakasleak: «Mendiburu asko daude Mendibururengan».

Ikastaroaren helburu guztiak beterik

Ezarritako helburu guztiak bete dituztela azaldu zigun atzo ikastaroaren amaieran Felix Marañak zuzendariak: «Oso ekarpen garrantzitsuak egin dituzte, besteak beste, Esteban Antxustegik edo Gabriel Intsaustik. Oso liburu interesgarria egingo dugu ikastaroko materialarekin». Eta helburuak bete izan ez balira ere, bera oso gustura

Remigio Mendiburu eskultoreak bere lanari buruz eginiko azalpenak entzun ahal izan ziren 'Dunbots' filmaren emanaldian

dago ikastaroa egitea lortu dutelako: «Mendibururi zor genion horrelako zerbait antolatzea. Askok poztzen nau guk egin izanak». Hala ere, oraindik badagoela zer azaldu eta zer eztabaidatu uste du Marañak, eta egokiena mintegia antolatzea izango litzatekeela.

Marañaren ustez, euskal eskulturgintzaren ezaugarri nagusia da tradizioetik abiatuz abangoardia egiten jakin izana, eta

teoria hori berretsi egin omen du Remigio Mendibururi buruzko ikastaroak.

Eskultoreari buruzko liburu berriak

Atzo amaitu zuten ikastaroa, eskultorearen Hondarribiko lantegira bisita eginez, eta aste gutxi batzuk barru, liburu bat argitaratuko dute, «oso ona», ikastaroko hitzaldiekin. Eta hitzaldiez gain, egunotan aurkez-

tu diren marrazkiak eta argazkiak ere bilduko ditu argitalpenak.

Felix Marañak aurreratu digunez, datorren irailean Remigio Mendibururi buruzko liburu berri batek ikusi du argia: Carlos Aurrenetxe idazlearen *A canto ciego* liburua. Bestalde, laster hasiko da Gipuzkoako Foru Aldundia Hondarribiko eskultorearen obraren katalogia egiten.



GARI GARAIALDE

Xabier Saenz de Gorbea Arte Ederretako irakasleak itxi zuen Mendibururi buruzko ikastaroa.

'DUNBOTS' FILMA

Izadia, isiltasuna eta artea filmaturik

Baso bat. Behe-lainoa ageri da zuhaitzen adarren artean, Antxon Larrauriren musikak lagundurik. Halako batean, Remigio Mendiburu agertzen zaigu, lanean.

Berak 1982. urtean egin eta zuzendu zuen *Dunbots* filmean ikusi ditugu irudi horiek. «Mendibururen lan esanguratsua da film hau», azaldu digu Felix Marañak idazleak, «artearen hainbat adierazpiderekin lan egiteko zuen joeraren adibidea da». Ikastaroa zuzentzen lagundu dion Juan Pablo Huercanos kazetariak azpimarratu egin du filma Mendiburuk zuzendu zuela: «Berak aukeratzen zituen planoak eta abar».

Ikastaroko ikasleek azalpenak ematen ariko balitz bezala mintzatu zaigu Hondarribiko eskultorea zinemako pantailatik. Hala, egunotan entzun diren azalpenekin bat egin dute bere hitzek: «Egurak esaten dit askotan nondik nora jo (...) Forma suntsitu egiten dut (...)», eta abar.

Batik bat, Hondarribiko eskultura lantegiak hartzen du protagonismoa *Dunbots* filmean. Mendiburu, zenbait planotatik harturik, artelan handi bat altxatzen ikusten da lantegi horretan. Bien bitartean, Larrauriren musika joan eta etorri dabil; isiltasunak nabarmendu egiten ditu artelanak. *Argi hiru zubi, Txoria, Ateak, Hostoak...* zurezko artelanean irudiek burdinazkoei ematen diete bide, ahots batek «eguzkia hotz dago!» oihukatzen duen bitartean. Filmari amaiera emateko, harri bat ageri da ikusleari so.